

IRAKASLE ATXIKIAK (IRAKASLE LAGUNTZAILE DOKTOREAK) HAUTATZEKO
IRIZPIDEAK / BAREMO GENERAL APLICABLE PARA LA SELECCIÓN DE PROFESORAS
Y PROFESORES ADJUNTOS (PROFESORAS Y PROFESORES AYUDANTES DOCTORES)

Aldi baterako irakasle eta ikertzaileak kontratatzeko arautegiaren II. Eranskinean dago jasota (maiatzaren 31ko EHAA).

Esta recogido en el Anexo II de la regulación para la selección y contratación de personal docente e investigador temporal (BO.P.V. de 31 de mayo).

1. Irakasle atxikiak (irakasle laguntzaile doktoreak):

Irakasle atxikien kategorian gehienez ere lor daitekeen puntuazioa: 100 puntu kontratu ez elebidunetan eta 89 puntu elebidunetan. Baremo orokorra ondorengo izango da, kontuan hartuta plaza elebidunetarako euskara ezinbestekoa dela eta, beraz, ez dela merezimendutzat hartuko:

1. Profesoras y Profesores Adjuntos (Profesoras y Profesores ayudantes doctores):

La puntuación máxima alcanzable en la categoría de Profesorado Adjunto, será de 100 puntos en contratos no bilingües y 89 puntos en contratos bilingües. El Baremo General será el siguiente, debiéndose tener en cuenta que en las plazas bilingües el euskera no se valorará como mérito, al exigirse como un requisito:

Laneko esp. eta beka / Exp. laboral y becas	Ikerk. Merzimen duak / Meritos de investig.	Irakaskuntza eta gestio merezimendua / Méritos docentes y de gest	Merezimendu akademiko / Méritos académicos	Irakaskuntzako programa / Programa docente	Ikerketa-proiektua / Proyecto de investigación	Euskara / euskera
20 puntu / puntos	20 puntu / puntos	10 puntu / puntos	15 puntu / puntos	10 puntu / puntos	10 puntu / puntos	11 puntu / puntos

Gainontzeko 4 puntuak batzordearen irizpideen arabera banatuko dira laneko esperientzia, ikerkuntzaren arloko merezimendu, irakaskuntzako, merezimendu eta gestio akademiko, merezimendu akademikoaren arloetan.

Los 4 puntos restantes se imputarán, a criterio de la Comisión, en los apartados experiencia laboral y becas, méritos de investigación, méritos docentes y de gestión, méritos académicos, programa docente o proyecto de investigación.

Puntuazio osoan berdinketarik egonez gero, lehentasuna izango dute ondorengoak betetzen dituzten izangaiek hurrenkera honetan:

- LOUko 63. artikuluan indargabetuan edo oraingo 57. artikuluan zehaztutako lehiaketetan parte hartzeko gaitasun-agiria lortuta edo egiaztatuta izatea.
- Euskal Unibertsitate-Sistemaren Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Agentziak, Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Estatuko Agentziak edo Euskal Autonomia Erkidegoko arautegiak onartutako antzeko erakunde batek emandako ebaluazio positiboa, irakasle oso, irakasle agregatu edo irakasle kontratatu doktoreen irudietarako.
- UPV/EHUtik kanpo, izen handiko ikerketa-zentroetan edo unibertsitateetan (Estatuan zein beste herrialde batzuetan) egindako hiru hilabetetik gorako egonaldiak.
- Puntuazio handiagoa ikerkuntzako merezimenduen arloan.
- Puntuazio handiagoa laneko esperientziaren eta beken arloan.
- Puntuazio handiagoa

En el caso de que se produjesen empates en el total de las puntuaciones, se dará preferencia a los concursantes en que concurren las siguientes circunstancias, por este orden:

- Que estén habilitados o acreditados para participar en los concursos a los que se refería el derogado artículo 63 de la LOU, o el actual artículo 57 de la misma.
- Que tengan evaluación positiva de la Agencia de Evaluación de la Calidad del Sistema Universitario Vasco, de la Agencia Nacional de la Evaluación de la Calidad y Acreditación u organismo similar reconocido por la normativa vasca, para las figuras docentes de Profesorado Pleno, Profesorado Agregado o Profesorado Contratado Doctor.
- Que hayan realizado estancias en universidades o centros de investigación de reconocido prestigio, españoles o extranjeros, distintos de la UPV/EHU, superiores a tres meses.
- Mayor puntuación en el apartado de méritos de investigación.
- Mayor puntuación en el apartado de experiencia laboral y becas.
- Mayor puntuación en el apartado

- | | | |
|---|-----------------------|--|
| merezimendu arloan. | akademikoen | de méritos académicos. |
| - Puntuazio irakaskuntzako gestio merezimenduen arloan. | handiagoa eta akademi | - Mayor puntuación en el apartado méritos docentes y de gestión. |
| - Puntuazio irakaskuntzako arloan. | handiagoa programaren | - Mayor puntuación en el apartado de programa docente. |
| - Puntuazio proiektuen arloan. | handiagoa ikerketako | - Mayor puntuación en el apartado de proyecto de investigación. |

**IRAKASLE ATXIKIEN LEHIAKETETARAKO IRIZPIDE ZEHATZAK / CRITERIOS
ESPECÍFICOS DE BAREMACIÓN DE LOS CONCURSOS DE PROFESORAS Y
PROFESORES ADJUNTOS**

Aldi baterako irakasle eta ikertzaileak kontratatzeko arautegiaren V. Eranskinean dago jasota (maiatzaren 31ko EHAA). Está recogido en el Anexo V de la regulación para la selección y contratación de personal docente e investigador temporal (BO.P.V. de 31 de mayo).

LOUren 63. artikuluan zehaztutako lehiaketetan parte hartzeko gaitasun-agiria lortu edo egiaztatuta duten lehiakideen kasuan, merezimenduan lortutako puntuazioa %20 gehituko da, euskararen jakite-mailarengatik emaniko puntuazioa izan ezin, guztira, gehieneko puntuazio gisa ezarri den muga, hau da, 100 puntutako puntuazioa inola ere gainditu ezin delarik. La puntuación alcanzada por una candidata o candidato habilitado o acreditado para participar en los concursos a los que se refiere el artículo 63 de la LOU se verá incrementada en un 20% de la puntuación de todos los méritos con excepción del Euskara, sin que en ningún caso se pueda sobrepasar la puntuación establecida con carácter general, es decir, 100 puntos.

Era berean, irakasle oso, irakasle agregatu, irakasle kontratatu doktoreen, irakaskuntza-irudiei dagokienez, Kalitatea Ebaluatzeko Euskal Agentziak, Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeko Estatuko Agentziak edo Euskal Autonomia Erkidegoko arautegiak onartutako antzeko erakunde batek emaniko aldeko balioespena eta ontzat emana lukeen izangaiak ere, %20 gehituko du lortutako puntuazioa, euskararen jakite-mailarengatik emaniko puntuazioa izan ezin, guztira, gehieneko puntuazio gisa ezarri den muga, hau da, 100 puntutako puntuazioa inola ere gainditu ezin delarik. Balioespen positibo En el mismo sentido, la puntuación alcanzada por una candidata o candidato con evaluación positiva o informe favorable de la Agencia de Evaluación de la Calidad del Sistema Universitario Vasco, de la Agencia Nacional de la Evaluación de la Calidad y Acreditación u organismo similar reconocido por la normativa vasca, para las figuras docentes de Profesorado Pleno, Profesorado Agregado, Profesorado Contratado Doctor, se verá incrementada en un 20% de la puntuación de todos los méritos con excepción del Euskara, sin que en ningún caso se pueda sobrepasar la puntuación establecida con carácter

edo aldeko txosten bat baino gehiago izanik ere, ez da puntuazioen gehikuntzarik inola ere metatuko.

1.- Ohar orokorrak.

- Ezin izango da baloratu gabe utzi baremazioko irizpideetan zehaztutako atal bat bera ere.
- Merezimendu bat atal batean baino gehiagotan balioetsi ahal denean, izangaiari Puntuazio handiagoa emango dion atala hartuko da kontuan.
- Balioespen-batzordeak gutxieneko nota bat ezar lezake, inola ere 30 puntutatik gorakoa ez, izangaiei kontratuaren formalizatzeko proposamena egin dakien eta, behar bezala arrazoitu beharko du aktan, batez ere inongo izangairik proposatu ez balitz.
- **Haztapenak:**
 1. Lehiakideren batek gainditu egiten badu atal baterako

general, es decir, 100 puntos. En ningún caso, el incremento de puntuación sea acumulable por contar con más de una evaluación positiva o informe favorable.

1.- Consideraciones generales.

- No se puede dejar de valorar ningún apartado previsto en los presentes criterios de valoración.
- Cuando un determinado mérito pueda ser considerado en más de un apartado, lo será únicamente en aquél en el que el candidato obtenga mayor puntuación.
- La Comisión podrá establecer una nota mínima, que en ningún caso puede superar los 30 puntos, para que las candidatas y los candidatos puedan resultar propuestos para la formalización del contrato, debiendo justificarlo debidamente en la correspondiente acta, especialmente en el supuesto de que ninguna candidata o candidato accediera resultará propuesto.
- **Ponderaciones:**
 1. En el caso de que un concursante supere en un

zehaztutako gehieneko puntuazioa, lehiakide horri gehieneko puntuazioa emango zaio eta, gainontzekoei, horren arabera puntuazioa haztatua.

2. Atal bakoitzeko puntuazioa ponderatu egin ahal izango da, 1/0,8/0,5/0,1 koefizienteak erabilita, meritua plazaren ezaugarrietara egokitu ahal izateko. Dena dela, epaimahaiak zero puntu eman ahal izango die plazaren ezaugarriekin zerikusirik ez daukaten merituak. Edonola ere, merezimenduen baremazioa zehaztean argi eta garbi adieraziko da zein prozedura erabiliko den aipatutako koefizienteak aplikatzerakoan. Prozedura horretan beren-beregi azalduko da haztapen-faktoreak zein ataletan aplikatuko diren eta zelan. Gainera, zehazki adieraziko da zer den espezifiko eta zer den kidekoa.

apartado concreto la puntuación máxima prevista para el mismo, tal concursante será calificado con dicha puntuación máxima y, en consecuencia, las puntuaciones de los demás concursantes, en dicho apartado se verán ponderadas.

2. La puntuación otorgada en cada apartado podrá ser ponderada con los coeficientes 1/0,8/0,5/0,1, de forma razonada, en función de la adecuación de los méritos a las características de la plaza. Sin perjuicio de lo anterior la Comisión podrá valorar con 0 puntos los méritos que no tengan ninguna relación con las características de la plaza. En todo caso, el procedimiento a seguir para aplicación de los citados coeficientes se señalará explícitamente en el momento de concretar el baremo de méritos. Este procedimiento ha de indicar expresamente los apartados del baremo en que se van a aplicar los factores de ponderación y el modo concreto de aplicación,

indicando de forma detallada qué se considerará específico y qué se considerará afin.

2.- Baremaziorako irizpide espezifikoak:

2.- Criterios específicos de baremación:

1.- Laneko esperientzia eta bekak

1.- Experiencia laboral y período de disfrute de becas

Unibertsitateko irakaskuntza / Docencia universitaria	≤ 4 puntu/urte
Doktorego aurreko ikertzaile kontratatua/lankidea / Investigador contratado predoctoral/Ayudante	≤ 2 puntu/urte
Doktorego ondoko ikertzaile kontratatua / Investigador contratado postdoctoral	≤ 3 puntu/urte
Unibertsitate-irakaskuntza eta ikerkuntzatik kanpoko esperientzia / Experiencia fuera del ámbito docente e investigador universitario	≤ 3 puntu/urte / puntos/año
Doktorego aurreko beka ofizialak (MEC, Eusko Jaurlaritza eta UPV/EHU) / Becas de convocatoria oficial del MEC, Gobierno Vasco y UPV/ EHU predoctorales	≤ 2 puntu/urte / puntos/año
Doktorego ondoko beka ofizialak (MEC, Eusko Jaurlaritza eta UPV/EHU) / Becas de convocatoria oficial del MEC, Gobierno Vasco y UPV/ EHU postdoctorales	≤ 3 puntu/urte / puntos/año
Bestelako beka eta laguntzak / Otras becas y ayudas	< 0,5 puntu/urte / puntos/año

- Atal honetako puntuazioa arduraldiaren arabera haztatuko da.

- La puntuación alcanzada en este apartado se ponderará en función del régimen de dedicación.

- Arduraldi partzialean egindako unibertsitate mailako irakaskuntza zerbitzuak haztatu egingo dira, unibertsitateko irakaskuntzarako erreferentziatzat

- Los servicios docentes universitarios prestados en régimen de dedicación a tiempo parcial se ponderarán, tomando como referencia de la unidad,

urtean 24 kreditu edo astean 8 irakastordutako unitatea hartuta. Bestelako kontratuak ere antzeko era honetara balioetsiko dira.

- Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean egindako irakaskuntzako zerbitzuak direnean ez da beharrezkoa izango horiek egiaztatzea, administrazio honek ofizios erantsiko baititu egiaztagiria. Dena dela, irakatsitako irakasgaiak jasotzen dituen ziurtagiria aurkeztu ahal izango dute izangaiek.
- Irakaskuntza publikoan egindako zerbitzuak zerbitzu-orriaren bidez eta emandako irakasgaiak jasotzen dituen ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira.
- Irakaskuntza pribatuan egindako zerbitzuak egiaztatzeko lan-kontratua eta Gizarte-Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak emandako ziurtagiria (ikastetxearen –enpresaren– izena eta alta-aldia jasoko dituen) aurkeztuko dira. Horrez gain, irakatsitako irakasgaiak jasotzen dituen ziurtagiria ere erantsi

para la docencia universitaria, los 24 créditos anuales o las 8 horas lectivas semanales. De forma similar se ponderarán contratos de otro tipo.

- No será necesario acreditar los servicios docentes prestados en la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, se adjuntarán por la propia administración de oficio. No obstante lo anterior, las concursantes y los concursantes podrán presentar certificación comprensiva de las materias impartidas.
- Los servicios docentes prestados en la enseñanza pública se acreditarán mediante hoja de servicios y certificación comprensiva de las materias impartidas.
- Los servicios docentes prestados en la enseñanza privada se acreditarán mediante contrato de trabajo y certificación expedida por la Tesorería General de la Seguridad Social donde conste el nombre del centro (empresa) y el período de alta. Deberá adjuntarse también la certificación comprensiva de las

beharko da.

- Ikertzaile moduan betetako zerbitzuak doktorego ondoko ikerkuntzaren atalean baloratuko dira, baldin eta izangaiak egiaztatzen badu kontratazio horretarako doktore-titulua eskatzen dela. Bestelakoetan, izangaiak titulua izan arren, doktorego aurreko ikerkuntzaren atalean baloratuko dira.

- Laneko esperientzia, oro har, honela egiaztatuko da:

- Besteren konturako lan-esperientzia izanez gero, lan-kontratuaren kopiaren bidez eta Gizarte-Segurantzako Diruzaintza Orokorraren ziurtagiriaren bitartez. Enpresaren ziurtagiria ere aurkeztu beharko da, interesatuak betetako lanpostuak eta zereginak zehaztuko dituen.
- Norbere konturako lan-esperientzia izanez gero, egindako jardueren zinpeko aitopenen bidez eta

materias impartidas.

- Los servicios prestados como investigador serán valorados en el apartado de investigador postdoctoral en el supuesto de que por parte de la candidata o candidato se acredite la exigencia del título de Doctor para dicha contratación. En caso contrario se valorarán en el apartado de investigación predoctoral, con independencia de que dicha candidata o candidato ostente dicho título.

- La experiencia profesional se acreditará, con carácter general, de la siguiente forma:

- Cuando se trate de experiencia profesional por cuenta ajena mediante la copia del contrato de trabajo y certificación de la Tesorería General de la Seguridad Social. Se acompañará certificado de la empresa en el que se expliquen los puestos y labores realizadas.
- Cuando se trate de experiencia profesional por cuenta propia mediante declaración jurada de las actividades realizadas y

dagokion Ogasun-Sailak emandako ziurtagiriaren bitartez, jarduera ekonomikoen gaineko zergan izandako alta-aldiak jasotzen dituen. Aurrekoaz gain, egindako lanak egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko ditu (BEZaren aitorenak, adibidez).

la certificación de la Hacienda correspondiente con los períodos de alta en el Impuesto de Actividades Económicas. Además de lo anterior resultará necesario aportar documentación justificativa de los trabajos efectivamente realizados (declaraciones de IVA por ejemplo).

- Bekak egiaztatzeko, berriz, beka-deialdia egin zuen organoaren ziurtagiria aurkeztu behar da. Ziurtagiri horretan beren-beregi adieraziko da noiztik noiz arte izan zuen beka izangaiak, eta denboraldi horretan etenaldirik egon zen ala ez.
- Aldi batera egindako lan eta beka-aldiak balioetsi egingo dira, gehien dela, 4 puntu urtean.
- El periodo de disfrute de becas se acreditará mediante certificación del órgano que convocó la misma, certificación en la que expresamente se diga la fecha de inicio y fin de su disfrute y si durante su disfrute se ha realizado suspensión alguna.
- Se valorarán los periodos de trabajo/becas que coincidan en el tiempo, con el límite de 4 puntos/año.

2.- Ikerkuntza-merezimenduak

2.- Méritos de investigación.

Ikerketa proiektuak	Kanpoko erreferentziarekin	
	Ikertzaile nagusia	≤ 1,25 puntu/urte
	Lankidea	≤ 0,75 puntu/urte
	Kanpoko erreferentziarik gabe	

	Ikertzaile nagusia	≤ 0,37 puntu/urte
	Lankidea	≤ 0,25 puntu/urte
Arte Ederretako plazetan, balioespen-batzordeak erabaki dezake ikerlantzat hartzea izangaiaren obra plastikoa, eta dossier behar bezain argigarria ikusita, ≤5 punturekin baloratu ahal izango du.		
Argitalpenak, garrantziaren, eraginaren eta poltsarekin daukan loturaren arabera	Liburua	≤ 5 puntu
	Liburuko kapitulua	≤ 2,5 puntu
	Artikulua	≤ 3 puntu
	Arte Ederretako katalogoa (gehienez 5)	≤ 0,5 puntu
Patenteak		≤ 2 puntu
Kongresuak	Ponentzia	≤ 1 puntu
	Komunikazioa	≤ 0,5 puntu
Tesiak zuzentzea		≤ 3 puntu
IAD/master amaierako lanak zuzentzea		≤ 0,5 puntu
Ikerkuntza-zentroetako egonaldiak (bi hilabetetatik gora)		≤ 4 puntu/urte
Ikerkuntzako bestelako merezimenduak		≤ 1 puntu guztira

Proyectos de Investigación	Con referencia externa	
	Investigador principal	≤ 1,25 Puntos/año
	Colaborador	≤ 0,75 Puntos/año
	Sin referencia externa	
	Investigador principal	≤ 0,37 Puntos/año
	Colaborador	≤ 0,25 Puntos/año
Para Bellas Artes la Comisión de Evaluación podrá determinar el carácter investigador de la obra plástica del concursante y, a la vista de un dossier ilustrativo, evaluarla con ≤ 5 puntos		
Publicaciones según	Libro	≤ 5 Puntos

importancia, impacto y adecuación a la bolsa.	Capítulo de libro	≤ 2,5 Puntos
	Artículo	≤ 3 Puntos
	Catálogo BB. AA. (hasta un máximo de 5)	≤ 0,5 Puntos
Patentes		≤ 2 Puntos
Congresos	Ponencia	≤ 1 Punto
	Comunicación	≤ 0,5 Punto
Dirección de Tesis		≤ 3 Puntos
Dirección de DEAs/Trabajos Fin de Master		≤ 0,5 Puntos
Estancias en Centros de Investigación (superiores a dos meses)		≤ 4 Puntos/año
Otros méritos de investigación		≤ 1 Punto total

3.- Irakaskuntzako merituak eta gestio akademikokoak:

3.- Méritos docentes y de gestión académica:

Ikasmateriala	Liburuak	≤ 2 puntu
	Kapituluak	≤ 1 puntu
	Izen handiko argitaletxeetan argitaratutako irakaskuntzako materiala edo irakaskuntza-ikaskuntzako zentro birtualetarako egindakoak, betiere, zentro ebaluatuen badira.	≤ 0,5 puntu
Ikasketa-berrikuntzako proiektuak	Arduraduna	≤ 0,5 puntu
	Lankidea	≤ 0,25 puntu
Zientzi dibulgaziorako argitalpenak		≤ 0,25 puntu
Irakaskuntza-lanaren inkesta positiboa		≤ 1 puntu/urte
Irakaskuntza unibertsitateko master ofizialetan		≤ 1 puntu /3 kreditu
Karrera/gradu-amaierako lanak/proiektuak zuzentzea		≤ 0,25 puntu
Euskarazko doktorego-tesia		2 puntu
Unibertsitatean beste hizkuntza batzuetan egindako irakaskuntza-lana (hizkuntza ofiziala ez bada eta ez jakintza arloko berariazkoa)		≤ 1 puntu/irakasgai/urte

Irakaskuntza-berrikuntzari buruzko ikastaroak ematea	≤ 0,5 puntu /3 kreditu
Irakaskuntza-berrikuntzako prestakuntza egiaztatua	≤ 0,25 puntu /3 kreditu
Hizkuntzak	C2 ≤ 5 puntu C1 ≤ 4 puntu B2 ≤ 2 puntu B1 ≤ 1 puntu
Unibertsitate eta ordezkari-tza-organoetan aritzea	≤ 1 puntu/urte
Bestelako irakaskuntza merezimenduak (ikastaroak, hitzaldiak eta abar).	≤ 2 puntu

Material Docente	Libros	≤ 2 Puntos*
	Capítulos	≤ 1 Puntos*
	Material docente publicado en editoriales de prestigio o en centro de recursos virtuales de enseñanza-aprendizaje que cuente con evaluación	≤ 0,5 Puntos*
Proyectos de Innovación docente	Responsable	≤ 0,5 Puntos*
	Colaborador	≤ 0,25 Puntos*
Publicaciones de divulgación científica		≤ 0,25 Puntos*
Encuestas positivas de la docencia		≤ 1 Punto/año
Docencia en másteres universitarios oficiales		≤ 1 Puntos/3 cr.
Dirección de Proyectos/Trabajos fin de carrera/grado		≤ 0,25 Puntos
Tesis Doctoral en Euskara		2 puntos
Docencia universitaria impartida en otro idioma (que no sea oficial ni específico de su área de conocimiento)		≤ 1 Punto/ asignatura/año
Impartición de cursos de innovación y calidad docente		≤ 0,5 Puntos/3 cr.
Formación acreditada en innovación y calidad docente		≤ 0,25 Puntos/3 cr.
Idiomas		C2 ≤ 5 Puntos C1 ≤ 4 Puntos B2 ≤ 2 Puntos B1 ≤ 1 Punto
Pertenencia a órganos universitarios y de representación		≤ 1 Punto/año

Otros méritos docentes (cursos, conferencias, etc.)	< 2 Puntos
---	------------

- UPV/EHUko master ofizialetan emandako irakaskuntza GAUR aplikazioan izandako grabazioaren bidez egiaztatuko dira.
- La docencia en masteres oficiales de la UPV/EHU deberá acreditarse mediante la correspondiente grabación en GAUR.
- Izartxoaz markaturiko ataletan euskaraz egindako merezimenduak 1,5ekin biderkatuko dira.
- En los apartados indicados con un asterisco los méritos realizados en Euskara se multiplicarán por 1,5.

4.- Merezimendu akademikoak

4.- Méritos académicos.

Batez besteko nota / Nota media	x 1 puntu / Puntos
Sari ezohikoa: / Premio extraordinario:	-Lizentziatura / -Licenciatura ≤ 2 puntu / Puntos
	-Doktoregoa / -Doctorado ≤ 2 puntu / Puntos
Nazioarteko tesia / Tesis Internacional	2 puntu / Puntos
Doktorego-programa (32 kreditu) / Programa de Doctorado (32 créditos)	≤ 2 puntu / Puntos
IAD (Ikasketa Aurreratuen Diploma) / DEA (Diploma de Estudios Avanzados)	≤ 1 puntu / Puntos
Doktore titulua (tesiaren kideotasuna eta kalifikazioa) / Título de Doctor (afinidad y calificación de la tesis)	≤ 6 puntu / Puntos
Master ofiziala / Master Oficial	≤ 3 puntu / Puntos
Bestelako masterrak eta graduondoko ikasketa ofizialak, 30 kreditutatik gorakoak / Otros Masters o cursos oficiales de postgrado de más de 30 créditos	≤ 2 puntu / Puntos
Unibertsitateko bestelako titulazioak / Otras titulaciones universitarias	≤ 3 puntu / Puntos
Bestelako merezimenduak / Otros méritos	≤ 2 puntu guztira / Puntos total

* Batez besteko nota: Espedientearen batez besteko nota jasota duten ziurtagiri akademikoaren kasuan, nota hori hartuko da kontuan.

Espedientearen batez besteko nota jasota ez bada, kalkulatu egingo da, irakasgaien kalifikazioak zenbaki bidez adierazita badaude.

Irakasgaien kalifikazioak hitzez agertzen badira, berriz, ondoko baliokidetasunak aplikatuko dira:

- Ohorezko matrikula: 10
- Bikain: 9
- Oso ongi: 7,5
- Nahiko, gaitua, baliozkotua, gai: 5,5

Batez besteko nota ateratzeko ez dira inolaz ere kontuan hartuko aukera askeko irakasgaiak.

Ziurtagiri akademiko pertsonala bidaltzen ez bada, izangaiaren batez besteko nota "nahikoa" dela ulertuko da. Besterik adierazi ezean, ezarritako puntuazioak unitateko izango dira.

5.- Euskararen jakite-maila

* Nota media: En aquellas certificaciones académicas en las que figure la nota media del expediente se tomará ésta en cualquier caso.

Si no figura la nota media del expediente se obtendrá la puntuación media de las calificaciones de las asignaturas cuando éstas vengan expresadas numéricamente.

Si la expresión es literal se obtendrá la media aplicando las siguientes equivalencias:

- Matrícula de Honor: 10
- Sobresaliente: 9
- Notable: 7,5
- Suficiente, aprobado, convalidado, apto: 5,5

En ningún caso se considerarán las asignaturas de libre elección para la obtención de la nota media.

En el caso de que no se remita la certificación académica personal se considerará que la aspirante o el aspirante obtuvo la nota media de aprobado. A no ser que se indique lo contrario, las puntuaciones establecidas son por unidad.

5.- Conocimiento del euskera

Hizkuntzen Balioespenerako Europar Erreferentziazko Esparru Bateratuko C1 mailaren titulu baliokideak:	8,8	Títulos equivalentes al nivel C1 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas:	8,8
HABEko 12. maila; ikasketak euskaraz (gutxienez %50):	6,6	Nivel 12 de HABE; Estudios en euskara (50% como mínimo):	6,6
HABEko 11. maila; Euskara Teknikoa	6,2	Nivel 11 de HABE; Euskara Técnico:	6,2
HABEko 10. maila:	5,7	Nivel 10 de HABE:	5,7
Administrazioko 2. hizkuntza-eskakizuna; Hezkuntzako 1. hizkuntza-eskakizuna:	5,3	Perfil lingüístico 2 de la Administración; Perfil lingüístico 1 de Educación:	5,3
HABEko 9. maila:	4,8	Nivel 9 de HABE:	4,8
HABEko 8. maila:	4	Nivel 8 de HABE:	4
Administrazioko 1. hizkuntza-eskakizuna:	3,5	Perfil lingüístico 1 de la Administración:	3,5
HABEko 7. maila:	3,1	Nivel 7 de HABE:	3,1
HABEko 6. maila:	2,6	Nivel 6 de HABE:	2,6
HABEko 5. maila:	2,2	Nivel 5 de HABE:	2,2
HABEko 4. maila:	1,8	Nivel 4 de HABE:	1,8
HABEko 3. maila:	1,3	Nivel 3 de HABE:	1,3
HABEko 2. maila:	0,9	Nivel 2 de HABE:	0,9
HABEko 1. maila:	0,4	Nivel 1 de HABE:	0,4

Euskaltegi homologatuetan gainditutako ikastaroak HABEn gainditutakoen parekotzat hartuko dira.

Los cursos superados en Euskaltegis homologados tendrán la misma consideración que los cursos superados en HABE.

Euskararekin lotutako beste merezimendu batzuk (gehienez 2,2 puntu)	
Administrazioko 4. hizkuntza-eskakizuna:	2,2
Euskal filologiaren eta, A hizkuntza euskara izanik, itzulpengintza eta interpretazioaren tituluak	2,2

Euskara hobetzeko ikastaroak	1 puntu/100 ordu
Euskara Teknikoa edo irakasgai baliokideak, euskararen jakintza-maila Hizkuntzen Balioespenerako Europar Erreferentziazko Esparru Bateratuko C1 mailako titulu baliokideaz agertu duten izangaien kasuan	1 puntu/10 kreditu

Otros méritos relacionados con el euskara (hasta 2,2 puntos)	
Perfil Lingüístico 4 de la administración	2,2
Títulos de Filología Vasca y traducción e interpretación con Euskara como lengua A	2,2
Cursos de Perfeccionamiento de Euskara	1 punto/100 horas
Euskara Técnico o asignaturas equivalente en el caso de candidatas y candidatos que hayan acreditado el conocimiento del euskera con títulos equivalentes al nivel C1 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas	1 punto/10 cr